



HERNANI ERROTZEN MEMORIA HISTORIKOA ELKARTE KULTURALA

Hernani Errotzen Elkarteak, «bulego txukuna eta lanerako egokia», Villa Ave Marian

Hernaniarren nafartasuna eta memoria historikoa berreskuratzea helburu dituen Hernani Errotzen Elkarteari lokala utzi dio Udalak Villa Ave Marian, eta atzo inauguratu zuten bulegoa.

HERNANI Errotzen Memoria Historikoa Elkarte Kulturalak bulegoa dauka Villa Ave Marian, atzoko egunaz geroztik. Hernani Errotzen Elkarteak, hernaniarren nafartasuna eta memoria historikoa berreskuratzeke lanean dihardu eta zeregin horretan segi dezan, lokala utzi dio Udalak. «Lokal txukuna eta lanerako egokia», azaldu du elkarteak. Atzo egin zuten inaugurazio ekitaldia eta bertan izan ziren elkarte kideekin batera, Luis Intxauspe alkatea, herriko talde ezberdinetako kideak eta hainbat herritar.

Bulegoak balioko die taldeko bilerak-eta egiteko, besteak beste, eta Nabarraldeko materiala ere bertan izango da eskuragai. Goizeko ordutegia izango du, normalean, 09:00-12:00. Bulegoko zenbakia, berriz, honakoa: 943 55 60 11.

Gaiarekin interesa, herritarrek Hernani Errotzen, Nabarraldeketik sortutako elkarte da. Badiara 3 urte herritar batzuk nafar-



Luis Intxauspe eta Beñi Agirre, atzoko inaugurazio ekitaldian.

tasunaren inguruan eta memoria historikoaren inguruan hitzaldiak eta liburu aurkezpenak antolatzen hasi zirela. Eta taldea, orain dela urte eta erdi inguru asentatu zen. Dozena bat herritar dabilta taldean, baina laguntzen duen jende gehiago badela dio Beñi Agirre taldekideak: «Gaiarekin interesatutako herritar dexente dago. Eta publikoa zabala da, ikuspegi politiko eta kultural

ezberdinetakoa».

Herritarren implikazioari lotuta, herri mailan dagoen laguntza eskertu du eta azaldu du horren adibide direla, besteak beste, Leokadisti liburudendak beraien materiala eskura jartzea eta Irizar tabernan, kamixeta eta banderak.

Hainbat ekimen

Ikerketak egiten ari dira. «Esaterako, aurkikuntza interesga-

ria izan da oso, XVIIgarren mendeko dokumentua bilatu izana». Dokumentua, Hernaniko kontzejuak Espainiako erregeari bidalia da garai hartan. Orain, arrasto gehiagoren bila dabilta. Dokumentu haren erantzunaren bila, hasteko.

Horrez gain, egin dituzte: hitzaldiak, liburu aurkezpenak... Hemendik aurrera, asmoa dute ikastaroak ere antolatzeko. Azken bi urteetan Tilosetan egin den kulturen arteko azoka ere Hernani Errotzenek antolatu du, beste talde batzuekin batera.

Datorren urterako lanean

Datorren urtean, hau da, 2012an, Nafarroako erresumaren konkistaren 500garren urteurrena izango da eta Hernani Errotzen taldea Hernaniko beste elkarte eta taldeekin lanean ari da. «Asmoa da talde horiek beraien ekintzetan ikuspegi honen berri ematea. Argi edukitzea gai honen gainean denok egin dezakegula zerbait. Hori oso inportantea da», diote. ||

'AZKEN BIDAIA' DOKUMENTALAREN AURKEZPENA GAUR

Nola salbatu ziren naziengandik ihesi zebiltzan milaka abiadore?

Enara Goikoetxea eta Iurre Telleria hernaniarrek zuzendutako 'Azken Bidaia' dokumentala, Comete Sareari buruzkoa, aurkeztuko dute gaur, 19:00etan, Biterin. Ondoren kolokioa izango da.

BIGARREN Mundu Gerran, naziengandik ihesi zebiltzan 3.000 bat abiadore eta lagun, Comete Sareak egindako lanari esker salbatu ziren. Sare horri buruzko pelikula-dokumentala egin dute Enara Goikoetxea eta

Iurre Telleria hernaniarrek, *Azken Bidaia* izeneko, eta Biterin aurkeztuko dute gaur, 19:00etan. Musika, berriz, Joxan Goikoetxea hernaniarrek egingo da.

Dokumentala, 1943ko urtarilaren 15eko gauetik abiatzen

da. Hurrengo egunean, Urruñako Bidegain-Berri baserrian 6 lagun atxilotu zituzten alemanek. Florentino Goikoetxea mugalari hernaniarra libratu egin zen. Dokumentala ikusi ondoren, kolokioa izango da.

Asteburuan ere ikusgai

Dokumentala bihar ere ikusgai egongo da, 19:30etan eta 22:30etan, eta igandean, 19:30etan. Umeentzako berriz, *Las aventuras de Tintin: El secreto del Unicornio* emango dute asteburuan. ||

❖ AMHER

'Retorno a Hansala' pelikula eta erakusketa

Amher elkarteak antolatu duen *Immigratioa eta zinea* zikloa gaur bukatuko da *Retorno a Hansala* pelikularekin. 19:00etan izango da, Sandiusterrin, eta ondoren, ikusitakoari buruz hitz egingo dute. Bestalde, igandean Etorkinaren Nazioarteko Eguna dela eta, erakusketa jarri dute Biterin, abenduaren 23ra bitarte. ||

❖ BIDE MOZKETA

Portutik Osiñagara, bidea moztuta, gaur

Portutik Osiñagara doan bidea itxita egongo da gaur 11:00etatik 12:00etara, bai oinezkoentzat eta baita ibilgailuentzat ere, Diputazioa Hernaniko bariantea bikoizteko egiten ari den lanak direla eta. ||

❖ PRESOK - BARAUALDIA

Kontzentrazioa eta prentsaurrekoa, politikoaren eskutik

Presoen aldeko baraualdiak aurrera jarraitzen du eta gaur, politikoen txanda izango da. Hernanin, kontzentrazioa deitu dute 12:00etan, Plazan, eta alderdi politikoetako ordezkariak prentsaurrekoa emango dute. Lastaolako errotondan ere kontzentrazioa egingo dute 12:30etatik 13:30etara. ||

❖ A A M

Kontzentrazioa Zinkoenean, gaur

Hernaniko AAMk deituta, kontzentrazioa izango da gaur, 20:00etan Zinkoenean, *Gaixo larriak eta kondena osoa betea duten presoak* etxera lelopean. ||

❖ MUSIKA

Doinuzale eta Ozenki, gaur

Doinuzale musika eskolak eta Ozenki abesbatzak kontzertua eskainiko dute gaur 19:00etan, Milagrosan. ||

**OUTLET
DENDA
BERRIA!!**

Deskontuz betetako oinetakoetan eskaintza!
Nafar Kalean, 21 zenbakia



OINETAKOAK

Nafar kalea, 21 - ☎ 943 557 926
Iturriaga, 3 - ☎ 943 556 564

TELEFONOAK ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622
 ● **Autobusak:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037
 ● **Anbulatorioa:** 943 006666 - 943 203020 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
 + **FARMAZIAK** ● **Egumez:** **Bulnes** Etxeberri 1 - 943 557738 ● **Gauzez:** **Aizpuru** Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Goizean, tarteka, euri pixka bat egingo du, baina gainontzeko orduetan ateri egongo da urdineak ere izango dira. Gauean haize-bolada oso gogorak espero dira. Min.8° / Max.17°.
BIHAR Oso eguraldi petrala espero da. Zaparradak sarri botako ditu, noizbehinka trumoi-ekaitzarekin. Ipar-mendebaldeko haizeak neguko giroa ekarriko du. Min.7° / Max.10°.

SAHARAREN ALDEKO VIII. EUSKAL KARABANA

Supermerkatuetan bilketa, gaur eta bihar, Saharara produktuak bidaltzeko

Ikastetxeetan eta Biteri kultur etxean asteleheneetik ari dira produktuak biltzen: azukrea, sardinak eta atuna oliotan, pasta, konpresak...

AURTEN ere, Sahararen aldeko VIII. Euskal Karabanan parte hartuko dute hernaniarrek eta ikastetxeetan eta Biteri kultur etxean hasiak dira produktuak biltzen, Saharar herriari bidaltzeko. Gaur eta bihar, berriz, supermerkatuetan egingo da bilketa. Biltzen ari diren produktuak dira: azukrea, olio, pasta, lekaleak, atuna eta sardinak oliotan, konpresak eta helduentzako pixoihalak. Urtarrilaren 13 eta 14an ere izango da berriz aukera produktuak supermerkatuetara eramateko.

Ikastetxeei dagokienean, berriz, abenduaren 22ra arte, hau da, datorren ostegunera arte luzatuko dute bilketa. Eta kultur etxean, urtarrilaren 13ra arte.

Ohi bezala, kanpaina bukaera aldera, haima bat jarriko da Plaza Berrin. Hori, urtarrilaren 14an izango da.

Aurreko emaitzak gainditzeko asmoa Karabana, SEADen aldeko Otsailak 27 Saharar Herriarekiko Elkartasunerako Euskal Elkarrekin antolatuta dute, Uda-

len laguntzarekin. Azaldu dutenez, elkartasun kanpaina honen helburu nagusia Saharar Herriari janariak bidaltzea da, Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuak janari aldetik jasaten ari diren krisialdia ahal den neurrian arintzeko. Eta azken bost urteetako Karabana Bateratuek izandako arrakasta kontuan hartuta (480 tona pasatxo azken ekitaldian), edizio berri honetan, aurreko kanpainen emaitzak gainditu nahi dira.

Diru laguntza eman nahi izanez gero: Euskadiko Kultura 30350080940800054177. ||

GOBERNU BATZORDEA

Sei puntu erabakigai, gaur

Tokiko Gobernu Batzordea izango da gaur, 08:30etan, Alkatetzan (2garren pisua). Sei gai izango dituzte erabakitzeko: hainbat etxebizitza egokitzeko eskaerak; herriko partzela bat aztertzea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eskatuta; eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko baldintza-orriak eguneratzea. ||

BERTSOLARITZA

Umeen egunarekin, gaur hasiko da Bertsolata

Urtero bezala, Bertsolata hemen da, Gabonetarako ekitaldi ugariarekin. Hain zuzen, gaur hasiko da Umeen egunarekin. 14:30etan, Bertso Paper Lehiaketako sariak banatuko dituzte Sandiusterrin eta ondoren, bertso saioa eskainiko dute Ander Lizarralde eta Sustrai Colinak. ||

IGERILEKUAK

Igerilekua itxita, bihar goizean

Txapelketak direla eta, bihar, igerilekuak itxita egongo dira goizean. Igandean ere, waterpoloko partiduak daudenez, igerilekuak itxi egingo dira 12:00etan. ||

ANTZIOLA AUZOA

Ogia eskura, ia mugitu gabe

Antziola auzoan ogia erosteko, herritar batzuk zailtasunak dituztela ikusita, Antziola okindegiak ogia banatzeari ekin dio auzoan zehar, furgonetarekin. Plaza ingurutik pasatzen dira 09:30ak aldera. ||

KONTZERTUA

Ainara Ortega, gaur Antiguon

Ainara Ortega abeslari hemaniarrak Kantagin jazz ikuskizuna eskainiko du gaur, 21:00etan, Iñaki Salvador pianojolearekin, Lugaritz Kultur Etxean. ||

PELOTA

Hernanin bi partidu gaur, besteak beste

Gaur, Hernaniko Lauterdiko Txapelketako bi partidu izango dira, seniorretan, 21:00etatik aurrera: Markel Lizeaga/Aritz Murgiondo; eta Unai Ezeiza/Eneko Aizpitarte. Horrez gain, Gipuzkoako Txapelketan izango dira: infantiletan, Gazteleku /Xabat Pagola (19:30 Andoain); eta Umieta/Alain Agirre (20:00 Umieta). Kadeteetan, Arrasate/Arrue-Rodriguez (20:00 Arrasate). Gipuzkoako Trinkete Txapelketan, berriz, jubenetan: Jon Etxegoien/Umieta (20:15 Gaska). ||

EREÑOTZU

Auzolanerako eguna, bihar

Ereñotzun, urte amaiera honetan eta datorren urtean auzolanaren bidez egin nahi dituzten lanak zehaztu dituzte eta bihar ekingo diote lanari. Auzolanerako eguna jarri dute eta hitzordua 08:00etan da. Sei taldetan banatuta, Irrintzi taberna egokitzeko lanak egingo dituzte, eliza aurreko eskaileretako barandilak pintatuko dituzte, futbol zelaiko sarrera egokituko dute, auzo etxeko biltegian entreplanta egingo dute, buzoi zaharrak kenduko dituzte eta Patxikula ibai ertza garbituko dute. Lanerako prest daudenei dei egiten diete azaltzeko. ||

TXOKO FEMINISTA - Manifestazio Nazionala

Autobusean joateko, izen ematea gaur

Euskal Herriko Mugimendu Feministak manifestazio nazionala deitu du larunbatean Bilbon, *Manifestakzioa* leloarekin, eta Hernanitik autobusa aterako da 16:30etan. Zerrendak: Garin eta Oindin. Gaur 18:00ak baino lehen eman behar da izena. Hernaniko Txoko Feministak dei egiten die herritarrei manifestaziora joateko. 18:00etan abiatuko da Arriagatik. ||

Eskelak

† **MARIA ANGELES PEREZ DE SIMON**
 ANDREA
 (Juventio Riojaren alarguna)
 Atzo hil zen Hernanin, 86 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta
 - Goian Bego -
 Alaba: Milagros; bilobak: Iñaki eta Zuriñe; birloba: Ioritz; anai-arrebak: Francisco (†) eta María, Antonio (†) eta María Aranzazu, José Luis (†) eta María Eulalia, Celestino (†) eta Luisa (†), Melecio (†) eta Alejandra (†), Pablo (†) eta Tránsito (†), Trinidad (†), Juliana (†), eta Margarita (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideek.
 Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezte **GAUR, OSTIRALA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2011eko abenduaren 16an
 Helbidea: Txirrita, 15 - 2.
 Oharra: Gorputza ORBEGOZO FUNERARIA TANATORIOAN egongo da 12:00ak arte.

V. URTEURRENA
Jesusa Aranburu Etxenike
 2006ko abenduaren 18an hil zen, 89 urterekin
 -Goian Bego-
 Jesusa gure artean joan zela bosgarren urtea bete den honetan, senitartekook ororigarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztioi. Aldez aurretik, eskerrik asko.
 Urteurreneko meza, **BIHAR, LARUNBATA, arratsaldeko 19:00etan**, Hernaniko **SAN JOAN BATAIATZAILEA** parroki elizan. Aldez aurretik, mila esker.
Hernanin, 2011ko abenduaren 16an

IRAGARKI MERKEAK

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazioa, eguberrikako prezio bereziki 2X1. Beherapenak aurpegi tratamenduetan. Dieta personalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzaila. **Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.**
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Inigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

GARAYAR AVTOBYSAK
 Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)
 Autobus zerbitzua Linea erregularrak
 Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
 Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain
 Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
 Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

JOSU ALKORTA
 harategia
 JABUGORIK ONENA...
 ..BENETAKO JABUGOAI!
 Nafar kalea 11 Tel.: 943 551 681

TITAN-ETXE
 TABERNA
 ASTEBURUETAN AFARIAK
 Laramendi, 15
 Tel.: 943 55 00 46

GABONETAKO ZOZKETA 2011
 *Errifak salgai!
BETE DUGU SASKI BEREZIA!
 3. SASKIA BETETZEN ARI GARA
 Opariak igandeko Kronikan azalduko dira